

# XX

Literatur lehiaketa  
haur eta gazteentzat  
euskaraz

Certamen literario  
infantil y juvenil  
en euskera



# 2009



AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN  
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara zerbitzua  
Servicio municipal de euskera

Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2009ko udaberrian antolatutako haur eta gazteentzako literatur lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 203 lan aurkeztu ziren eta epaimahaiari pertsona hauek egon ziren:

### **Presidentea**

María Lecumberri Bonilla

### **Alaitz DBH Institutuko irakasleak**

Jokin Muñoz

Maite Gorospe

María Ángeles Arregi

Bihotz Unanua

### **Alaitz LH Ikastetxe Publikoko irakasleak**

Iñaki Andueza

José Luis Ladrero

### **Ika Sahats euskaltegiko irakasleak**

Aitziber Garralda

Arrosa del Burgo

Ascen Argandoña

José Ramón Olano

Josu Asurmendi

Josu Mujika

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil/juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2009. En total se presentaron 203 obras, y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

---

### **ARGITALPENA / EDICIÓN**

Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

### **DISEINUA / DISEÑO**

HEDA Comunicación

### **INPRIMAKETA / IMPRESIÓN**

Gráficas ONA

### **L.G. / D.L.**

599/2008

# Presentación

Esta presentación va dirigida principalmente a todos los autores de los cuentos y bertsos que a continuación quedan reflejados en este libro, escritos en euskera por niños, niñas y jóvenes de nuestra localidad, y que con casi toda seguridad disfrutaréis con su lectura.

En primer lugar daros las gracias a todos los participantes en este certamen literario infantil y juvenil en euskera, ya que sin vuestra participación este certamen no sería posible.

En segundo lugar, quiero felicitar a todas y todos los ganadores de este certamen; aunque ya tuve la ocasión de hacerlo durante la entrega de premios, no podía dejar esta oportunidad para volver a hacerlo, felicitar a los que no pudieron asistir ese día y dejarlo reflejado en estas líneas.

No quería dejar pasar esta oportunidad para felicitar y agradecer a todas las personas que de una manera u otra han hecho que este certamen haya tenido continuidad a lo largo de los años, llegando en 2009 a su XX edición.

Debido a su buena aceptación, seguiremos fomentando este Certamen Literario en euskera, ya que gracias a la buena acogida que tiene entre niñas, niños y jóvenes de Barañáin que tienen como una de sus lenguas el euskera, el próximo año convocaremos la XXI edición, y eso creo que es un signo muy importante.

Os animo a que sigáis enriqueciendo y participando en este certamen literario en euskera.

Un cordial saludo y gracias,

# Aurkezpena

Aurrean duzuen aurkezpen hau liburuxka honetako ipuinen eta bertsoen egileei zuzendu diet nagusiki, euskaraz idatzi duten gure herriko haur eta gazteei, hain zuzen. Lan hauek irakurtzerakoan gozatuko duzelakoan nago.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet haur eta gazteentzako euskarazko literatur lehiaketa honetako parte-hartzaile guztiei, zuen ekarpenik gabe ez bailegoke lehiaketarik.

Bigarrenik, lehiaketan sarituak izan zaretenei zorionak eman nahi dizkizuet, sari banaketan aukera izan nuen arren ez baitut berriz ere egiteko aukera galdu nahi. Beraz, egun hartan egoterik izan ez zenutenentzako ere badoazkizue lerrook gordeko dituzten zorionak.

Ez dut aukera galdu nahi urtez urte, modu batean edo bestean, lehiaketak jarraipena izatea ahalbidetu duten pertsoneri zorionak eta eskerrak emateko; izan ere, XX. ediziora heldu gara aurten.

Duen harrera onaz jabeturik, beren hizkuntzen artean euskara duten haur eta gazteen artean duen harrera ona ikusirik, euskarazko literatur lehiaketa hau sustatzen jarraituko dugu. Hartara, datorren urtean hogeita batgarren edizioa antolatuko dugu, eta uste dut nabarmentzekoa dela hori.

Nire animoak helarazi nahi dizkizuet, literatur lehiaketa hau aberasten eta horretan parte hartzen jarrai dezazuen.

Agur bero bat. Esker anitz,



Iz. / Fdo.

**MARÍA LECUMBERRY BONILLA**

**PRESIDENTA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EDUCACIÓN Y DEPORTE  
RESPONSABLE DEL ÁREA DE EUSKERA**

**HEZKUNTZAKO ETA KIROLERAKO INFORMAZIO BATZORDEBURUA  
EUSKARA ARLOKO ARDURADUNA**



### ILARGIA JATEN

**Ibai Leceta Maraño**

**1. SARIA:** Lehen Hezkuntza 3. maila

**1° PREMIO:** Educación Primaria 3° curso

Duela urte asko Aitor izeneko mutiko bat ilargian bizi zen. Ille horia, begi urdinak eta belarriak txikiak sudurra bezala. Bakarrik bizi zenez aspertuta zegoen. Horregatik gustura ibiltzen zen lagunekin. Ez zuen janaririk, orduan ilargia jaten zuen.

Ilargia joan ahala lau faseak sortzen ziren baina egun batean ilargia bukatu zen eta planeta guztia ilargirik gabe gelditu zen. Bat-batean mutiko bat agertu zen eta lagunak egin ziren. Mutikoaren ametsa zerura joatea zen. Aitorrek eramango zuen janaria ematen bazion eta Aitorrek esan zuen:

- Nik zerura eramango zaitut janaria ematen badidazu!
- Bale, ados- erantzun zuen mutikoak

Azkenean Aitor esnatu zen, eskerrak guztia amets bat izan zela eta... Egia ala gezurra? Begi bien artean sudurra.

### LAMINA BATEN ABENTURA

**Ane Ariz Balda**

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 3. maila

**2° PREMIO:** Educación Primaria 3° curso

Bazen aspaldi batean lamia bat, Euskal Herriko erreka batean aspertuta bizi zena. Bere ametsa itsasoa ezagutzea zen.

Egun batean itsasora joatea erabaki zuen. Errekatik jaisten ari zela urtegi bat topatu zuen. Ezin zuen aurrera ezta atzera joan. Pareta zeharkatzeko zuloak txikiegiak ziren berarentzat eta goian ur asko indar handiz jaisten zenez ezin zen atzera itzuli.

Atzetik, ikaragarritzko sustoa eman zion karramarro bat agertu zitzaion. Karramarroak hauts magiko batzuk zituen eta txikiagotu egin zuen lamia.

Urtegia pasatu eta gero ur jauzi bat zegoen. Horretan lamiak karramarroa besoetan hartu eta jauzi beheruntz egin zuen. Eskerrak enbor handi bat zegoen uretan flotatzen! Berari helduta itsasorantz joan zen.

Azkenean itsasora iritsi zen. Karramarroak joan beharra zuen eta lamiak ere. Agurra egin ondoren lamien herrira joan zen.

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan.

### UHARTEAN ABENTURA

**Ainhoa Lasarte Cia**

**1. SARIA:** Lehen Hezkuntza 4. maila


**1° PREMIO:** Educación Primaria 4° curso

Ni Xabi naiz eta orain dela hilabete batzuk gertatu zitzaidan istorioa kontatuko di-zuet.

Ni altua naiz, ez naiz ez argala ez lodia. Ille beltz-beltza daukat, pixka bat kizkurtua. Be-

gi polit-politak, berde argiko kolorekoak. Asko gustatzen zait telebista ikustea, gehien gustatzen zaidana. Azkar pentsatzen ditut gauzak eta gainera oso ongi. Abenturak bizitzea gogoko dut baina ez ditut bizi oraindik. Egongela da nire tokirik gogokoena telebista, musika, kasetak... daudelako eta niri, lehen esan dudan bezala, pila bat gustatzen zaizkit gauza horiek.

Euria ari zen fuerte-fuerte, tximistak ere bai eta ni ohitura bezala telebista ikusten nengoen. Bat-batean den-dena beltz-beltza ikusi nuen, elektrizitatea moztu egin zen tximistengatik. Poliki-poliki eta kontu handiz logelara igo nintzen eta ohean etzan nintzen. Halako batean elektrizitatea berriro itzuli zen. Arraroa da oso orain esan behar dizuedana, ez nintzen telebistaz oroitzen!! Nire inguruan begiratu nuen eta gauza batean fijatu nintzen, Robot Hegalarian!! Abentura bat bizitzeko gauzarik hoberena zen. Ziztu bizian joan nintzen robotarengana eta hitz egiten hasi ginen. Uhartetara joango ginela gelditu ginen. Irland uhartetara. Leihotik atera eta harantz abiatu ginen.



Han gizon itsusi bat zegoen baina, dakizuenez, ez du inporta itsusia izateak. Ondoren gure etxola bisitatzera joan ginen, lujuzkoa zen!! Egunean zehar basora joan ginen eta Tarzanan antzera zuhaitzetatik zintzilik zeuden belarretatik zintzilikatu ginen eta ibaiak zeharkatzeko tirolinetatik pasa egiten ginen. Bat-batean nire begien aurrean ile motza zeukan neska eder bat zegoen. Ni guztiz lotsatu egin nintzen eta oso gorria jarri zitzaidan aurpegia. Ni, itxaropen handiarekin, neskaarengana hurbildu nintzen, nirekin buelta bat ematera joateko eskatu nion eta berak baietz esan zidan, orduan bere ohiturak kontatu zizkidan eta nik nireak.

Paseoa amaitzean bere helbidea eskatu nion eta nik nirea eman nion eta, entzun egin nuen ez hori egin nuen; neska esan nion hau egiteko gogo asko nirela eta muxu bat eman nion ezpainenetan. Ondoren agurtu egin nuen. Robotari esan nion dena eta berak neskaarengana bueltatu zuela esan zidan.

Robotak soinu batzuk egin zituen eta etxera joan behar ginela esan zidan, etxerako bidean zehar joan ginen, etxera iritsi arte. Gelara sartu, leihoa itxi, gela txukundu eta arnasestuka joan nintzen sukaldaraino, telebista ikustea ez dela munduko gauzarik hoberena pentsatuz. Amak ni arnasestuka ikustean entrenamendutik etorri nintzela uste zuen...

Bakatu da nire istorioa, oraindik ez dit neska horrek deitu... RING-RING, telefonoa hartuko dut, neska hura da!! Barkatu baina utzi egin behar zaituztet.

# OTOITZ EGIN! OTOITZ EGIN! ZE ASPERGARRIA!

**Martin Gil Lizarraga**

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 4. maila

**2° PREMIO:** Educación Primaria 4° curso

---

Bazen behin, beti otoitz egiten eta ondo portatzen zen jainko bat. Bizar luze-luzea zuen elurra bezain txuria eta 900 urte baino gehiago zituen. Etxe handi-handi batean bizi zen zeruan. Jendeari asko laguntzen zion eta aingeruak ikusten zituenean, gozoki bana ematen zien. Zeruko biztanle guztiak maite zuten jainko hura.

Egun batean, esnatu eta otoitz egiteaz aspertuta zegoen. Lotan zegoela deabruak hitz egin zion telepatiaz eta gaiztakeriak egiteko konbentzitu zuen. Esnatzean, lehenengo gosaldu egin zuen beti bezala. Baina gero, kalera jaitsi, harri bat hartu eta ondoko etxearen kristalera jaurti zuen. "KKRRRRASSSK" entzun zuen. Etxearen jabea berehala atera zen, eta galdetu zion:

- Zergatik egin duzu hori? Gaur oso aldatuta zaude.

Jainkoak ez zuen erantzun, eta joan egin zen. Hurrengo egunean aingeru batzuen harpak ikusi eta harpak kendu eta gitarra elektriko batzuk jarri zituen. Aingeruak jotzen hasi zirenean zarata oso handia entzun zen. Bitartean jainkoa farrez lehertzen eta "Rock" a dantzatzen ari zen. Hurrengo egunean auto bati gurpilak zulatu zizkion, pardoak jarri zituen kalean. Gero eta gaiztoagoa zen. Zeruko biztanle guztiak oso kezkatuta zeuden. Ez zekiten zer egin. Bati azti bati laguntza eskatzea bururatu zitzaion, eta halaxe egin zuten. Aztiak esan zien aingeru batzuk bidaltzeko deabruari aurre egiteko eta jainkoaz bera arduratuko zela. Aingeruek deabrua menderatu zuten.

Azkenean aztiak bere plana burutu zuen: beste dimentsio ezeguzun batera joateko tunel bat eman zion. Orduan jainkoa haserretuta, urduri, egonezin... zegoenean dimentsio horretara joan eta lasaitu arte egoten zen. Gero benetako dimentsioan (bere etxea zegoen tokian, zeruan) beti zegoen pozik.

# NOLAKOA DA BASAJAUN?

**Idoia Garmendia Berango**

**1. SARIA:** Lehen Hezkuntza 5. maila

**1° PREMIO:** Educación Primaria 5° curso

---

Behin batean Antton izeneko mutil bat Euskal Herriko herri batera etorri zen. Poli-ki-poliki herriko beste neska-mutilak ezagutu zituen. Bere lagun berriek Basajaunari buruz hitz egin zioten eta oso gaiztoa zela esan zioten.

Udaberriko egun batean Antton eta bere lagunak basora abiatu ziren. Bat-batean, Anttonek basoa ezagutzen ez zuenez, galdu egin zen. Beldurrez josita zegoen Basajaun agertuko zela pentsatuz. Basajaun hortik zebilen eta dena ikusi zuen. Anttonek pena eman zion eta horregatik hurbiltzea erabaki zuen eta esan zion:

- Ez izan beldurrik, mutil! Ez dizut ezer egingo eta!

Anttonek ia-ia hitz egin ezinik, galdetu zion ea Basajaun zen. Basajaunek erantzun zion:



- Bai, ni naiz. Ez kexatu! Erran dizudan bezala ez dizut ezer egingo.

Anttonek esan zion:

- Herriko jendeak zutaz hitz egin dit eta gaiztoa zarela erran didate.

- Haiek bai direla gaiztoak! Hona etortzen diren bakoitzean, basoa zikintzen dute, zuhaitzak mozten dituzte eta ez dira konturatzen zuhaitzak kabiz josita daudenik. Ibaiak ere zikintzen dituzte. Horregatik egun batean haiekin haserretu nintzen eta handik aurrera maltzurra naizela erraten dute.- Azaldu zuen Basajaunek.

- Orduan zuk nahi duzuna basoa zaintzea da, ezta?- galdetu zion Anttonek.

- Nik zaintzen ez badut nork zainduko du bada?- esan zion Basajaunek.

- Azaldu didazuna nire lagunei kontatuko diet eta denon artean basoa zaintzen saiatuko gara- agindu zion Anttonek.

Eta hortik aurrera basoa garbiago dago eta Basajaunen izaera aldatu da.

Hala bazan ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Barañaingo plazan.

## GELA BATEKO LANDAREEN “IKASTORDUAK”

**Iñaki Martínez Azpiroz**

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 5. maila

**2º PREMIO:** Educación Primaria 5º curso

Egunero bezala bederatzia puntu-puntu zirela, eskolako txirrinak jo zuen:

- Ri!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!- lehenengo hotsak eta pausoak entzuten ziren eta bat-batean:

- Ea hazi diren landareak!! -mutiko batek.

Horrelakoa zen ikasleen ahotsa eta honelakoa landareena:

- AAAAAAAAAAAAAH!!!! Etorri dira!!!! -landare batek.

- AAAAAAAAAAAAAH!!!! Ukitu egin nau!!! -albokoak.

- AAAAAAAAAAAAAH!!!! Sudurra gainean dut!! -besteak.

- AAAAAAAAAAAAAH!!!! -guztiak batera oihuka.

Azkenean maistra etorri eta:

- Guztiak eseri, eta atera matematika fitxa -jenio handia zuen maistra horrek, baina landareak maitekiro zaintzen zituen.

Landare batek hau uste zuen klaseaz:

- Ze aspergarria izango den beraien bizitza.

Ondokoak berriz, hau uste zuen:

- Aspergarria izango da hemen, baina patioan oso ondo pasatzen dute gehienetan.

Eta horrela ibiltzen ziren landare guztiak patioa ailegatu arte.

Patioa ailegatzean, honela jartzen ziren landareak:

- Orain sufritzeko garaia da, ez dute ikusten hezea dagoela gure lurra?! -landare batek.



- Hori da!! Zer daude ba hainbeste ur botatzeko?! -beste landare batek.
- Zoroak daude ala?!!! -izkinekoak.

Patinoa bukatzean:

- O ez, berriz ez!!! -landare guztiek aho batez.
- Ez ukitu nil! Ez, ez ez ez ez ez ez!! AAAH!!!! -landare batek.
- Mesedez, ez nazazu ukitu!! Eeeeeez!!!! -beste landare batek.

Baina irakaslea etortzerakoan:

- Atera ingurune liburua! -esan zuen irakasleak, eta bakea nagusitu zen berriz landareen txokoan.

Klasea bukatzean guztiak patiora, etxera, kotxera, ... joan ziren bazkaltzeko ordua zelako.

Bazkaltzen ari zirela:

- Oso gustura egoten da hemen eguzkitan, eh? -esan zuen landare batek.
- Bai, arrazoi duzu -ingurukoek. Berban aritu ondoren lo hartu zuten.

Siestan ibili ziren bai, baina esnatu ere bai:

- Riiiiiiiiinnng!!!
- A zer susto galanta!! -landare guztiek.
- O ez, hots horiek, pauso horiek, AAAAAAAAAAAAAAAH -landare batek.

Baina oraingoan ez zen ezer handirik gertatu plastika saioa zeukatelako eta landareek kriston lasaitua hartu zuten:

- Uff.

Klasea bukatzean ere, ez zen gauza handirik gertatu, gauzak bildu zituzten eta korrika eta txutxu-mutxuan alde egin zuten guztiek poz-pez. Baina nortzuk zeuden alaiago, neska-mutilak ala landareak?

## DEABRUAREN KOBAZULOA

**Berd Isamu Villamor Tokumine**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 6. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 6° curso

Bazen behin Maria izeneko emakume bat Japonian bizi zena. Mariari arroz biribila egitea asko gustatzen zitzaion baina egun batean lurrera erori zitzaion zulo batetik eta emakumea zulotik sartu zen.

Arroza bilatzen hasi zenean bat-batean hitz batzuk entzun zituen. Hurbildu eta estatua bat ikusi zuen. Ea arroz bolatxo bat ikusi zuen galdetu zion eta estatuak ezetz esan zion. Bat-batean oin baten soinua entzun zen. Estatuak deabrua han bizi zela esan zion. Estatuak kobazulotik ihes egiteko esan zion. Maria beldurrez ihes egiten hasi zen, baina deabruak ikusi eta bere etxera eraman zuen.

Deabruak Mariari gauza bat esan zion: bizirik utziko zuela janari on bat prestatzen bazion. Maria pentsatzen hasi zen, baina ez zitzaion ezer bururatzen deabruari egiteko. Orduan bere arroz miresgarriaz oroitu zen, baina ez zuen hor behar zituen osagai guztiak. Deabrua asko haserretu zen Mariak ez ziolako ezer egin jateko. Mariak korrika ihes egin zuen eta deabrua bere atzetik, Maria hiltzeko. Neska zerbaitekin irristatu eta lurrera erori zen. Deabruak bera hil behar zuenean, etxetik erori zitzaion arroza ikusi zuen. Orduan deabruari eman zion eta deabruari asko gustatu zitzaion. Deabruak

bakean utzi zuen Maria, baina baldintza batekin: hilabetero bost bolatxo arroz eman behar zizkion, bestela hilko zuen.

Azkenik Mariak baldintza bete eta deabruak betirako bakean utzi zuen. Mariak zuloa estali zuen, berriro deabruarena ez gertatzeko eta handik aurrera oso pozik bizi izan zen.

### KANPINEAN

#### Garazi Retegi Goñi

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 6. maila

**2° PREMIO:** Educación Primaria 6° curso

Orain dela gutxi, hiru ume, neska bat eta bi mutil, kanpinera joan ziren aitaren lagun batekin. Neska Maider deitzen zen. Begi marroiak eta ile kizkurra zeuzkan eta gehien gustatzen zitzaiona abenturak bizitzea zen. Maiderrek anaia bat zeukan, Egoitz izenekoa. Egoitzek ez zeukan arrebaren antzik, begi urdinak eta ile horixka zeukalako, baina berari ere abenturak bizitzea eta kirola egitea gustatzen zitzaion. Egoitzen eta Maiderren lehengusua Aimar deitzen zen. Maiderrekin Egoitzek baino antza handiagoa zeukalako anaiak zirela esaten zieten. Aimarrek begi marroiak zituen eta ilea gorri kolorekoa, baina kizkur-kizkurra. Asko gustatzen zitzaizkion animaliak eta abenturak bizitzeko amorratzen zegoen.

Neska-mutiek dena prestatu zuten: lo zakua, kantinplorak, janaria... Etxetik atera ziren Aimarren aitaren lagunarekin. Hirurak oso pozik zeuden; bide guztia abesten joan ziren akanpatzeko lekua aurkitu arte. Gauza guztiak prestatu eta gero, lekua esploratzerako joan ziren. Esploratzen ari zirela, Maider zulo batera erori zen. Maider eroritako zuloan, diru eta totxo pila bat zeuden. Umeak harriturik, zulo barrura jaitsi eta dena arakatu zuten.

Zulotik igo eta kanpinera joan ziren merendatzeko asmoz. Ez zuten beraiekin zegoen gizonari ezer kontatzeko asmorik.

Hurrengo egunean, bi gizon ikusi zituzten zulotik igotzen. Umeak, gizonak nor ziren eta zer egiten zuten jakin-minez segika hasi ziren.

Baseri batera joan ziren. Baserrian, ume bat zegoen txakur batekin. Neska zen eta txakurrak umeak sumatu zituen eta zaunka eginez beraiegana joan zen. Umeek, bel-durrez, korrika alde egin zuten. Neskak jarraitu zituen eta kanpinerraino ailegatu zen. Umeek, neska ikusita, nor zen galdetu zioten. Neska Amaia deitzen zen eta baserrian bizi zen gurasoekin eta txakurrarekin.

Maider oso pozik zegoen beste neska bat beraiekin egoteagatik. Jadantik ez zen neska bakarra. Amaiari zuloarena kontatu zioten eta Amaia harriturik zegoenez, beraiei laguntzeko prest zegoela azaldu zien. Egoitzek lagundu ahal zituela esan zion Amaiari.

Hurrengo egunean, Amaia kanpinera joan zen, Argi izeneko txakurrarekin. Denak oso pozik joan ziren zuloaraino, baina oraingoan itxita zegoelako asko kostatu zitzairen aurkitzea. Aurkitu zutenean, barrura sartu ziren. Aimar kanpoan geratu zen gizonak etortzen baziren abisatzeko.

Kanpoan zegoela, soinu bat entzun zuen, gizonak ziren. Aimarrek lagunei oihukatu zien. Umeak korrika kanpora atera ziren, baina Egoitzek orkatila bihurritu zuen eta Maider berarekin barruan geratu zen. Beste biek aldegin zuten.

Gizonak Maider eta Egoitz barruan ikusitakoan, soka batekin lotu eta hor utzi zituzten. Maider izaturik zegoen eta Egoitz arreba lasaitzen saiatu zen.

Amaiak eta Aimarrek, gertatutakoa esaten entzun zituzten gizonak eta lagunak askatzeko plan bat bilatu behar zuten. Amaiak bi gizonak ezagutu zituen. Bata bere aita zen eta bestea beraientzat lan egiten zuen gizon bat. Amaia asko harritu zen eta noizbait lur azpiko trenbide bat egin behar zutela esaten entzun zien. Momentu horretan Aimarri plan bat bururatu zitzaion: Amaiak bere aitari galdetu behar zion ea trenbidea egiten hasi ziren. Baietz esaten bazion, seguraski dirua zegoen zulotik pasatuko zen trenbidea. Orduan, trenbidea hasten zen bidetik joango ziren dirua zegoen zuloraino eta beraien lagunak askatuko zituzten.

Amaiak bere aitari galdetu zion, baina ezetz esan zion. Bi haurrek, penaturik, beste plan bat pentsatu behar zuten.

Hurrengo egunean, Amaiak, bere aita hiru egunetarako joan behar zela esan zion Aimarri. Aimar pozez zorutzen zegoen. Korrika zulorantz joan ziren, lagunengana joan eta askatu zituzten. Gosez zeuden eta kanpinera joan ziren zerbait jatera.

Jan eta gero, zuloa joan ziren berriro. Zuloan zeudenean, bi gizonak joan ziren eta zulo barruan harrapatu zituzten lau haurrak eta txakurra. Amaiairen aitak Amaia zuloan ikustean, joka hasi zitzaion, norbaiti zerbait esaten bazion berriro joko zuela esaten zion bitartean. Haur guztiak beldurturik zeuden. Bitartean, beste gizona haurrak lotzen ari zen, eta gero Amaia lotu zuen. Orain beraiek bakarrik lortu behar zuten zulotik ateratzea. Aimarrek lupa bat zeukan praketakako poltsikoan eta Maiderrek ikusi eta hartu egin zuen. Zulo txiki batzuetatik argi izpiak sartzen ziren eta Maiderrek Aimarren sokak erre zituen lupa eta argi izpien laguntzaz. Horrela, haur guztien sokak erre zituzten eta zulotik atera ziren.

Haurrek gizonak harrapatu nahi zituzten, dirua eta totxoak zulotik ateratzen ari zirelako. Haurrek plan bat bilatu behar zuten gizonak harrapatzeko. Maiderri bat bururatu zitzaion, baina denbora asko beharko zuten.

Azkenean, bi haur zulo ondoan ezkutatu ziren eta beste biak poliziarengana joan ziren korrika. Gizonak zuloan sartu orduko zuloa itxi behar zuten harriz eta egurrez. Hori egin zuten, baina gizonak, haurrak barruan ez ikustean, kanpora atera ziren korrika, baina zulotik atera zirenean polizia ailegatu zen.

Gizonak gartzelara eraman zituzten. Poliziek haurrei esan zieten bi gizonak lapurrek bilatuenak zirela eta lau haur eta txakur baten laguntzaz harrapatzea lortu zutela. Haurrek, poliziei galdetu zieten ea gizonek nondik ateratzen zuten dirua eta polizien erantzuna bankuetatik ateratzen zutela izan zen.

Hurrengo egunean, Amaia agur esan eta etxera joan ziren. Eskolara joaten zirenean abentura berri bat zeukaten lagunei kontatzeko.

# GIZAKIEN AZKENA

**Bidane Zabalza Alonso**

**I. SARIA:** Bigarren Hezkuntza I. DBH

**1º PREMIO:** Educación Secundaria 1º ESO

Nork esaten du estralurtarrak ez direla existitzen? Zuek? Zuek ez dakizue ezer gure espezieari buruz. Gure espeziea zuena baino garatuagoa dago. Oso ausartak zarete esaten duzue baina ez duzue planetarik konkistatu. Ze uste duzue, berdeak garena, bi antena ditugula eta ez dakit zenbat begi ditugula? Ba ez! Ez gara denak berdinak. Bakoitza kolore batekoa da, guk aukeratzeko ditugun begiak izaten ditugu. Batzuetan hiru eta asteburuetan berriz, dotoreago egoteko bat erdian jartzen dugu. Zuen informazioarako ez dugu antenarik, ez dakigu nondik atera dituzuen horrelako gauzak. Ez gara Neptunokoak, Uranokoak edo Martitzekoak. Planeta horien izenak guk erabakitzen ditugu, gureak direlako eta izen horiek ez zaizkigu gustatzen. Gure planetak Estratortx du izena eta zuen galaxia berberean dago. Baina zuek gutxi iraugo duzue, Lur planetarekin egingo gara beste planeta guztiakin bezalaxe eta gizakiak betirako desagertuko dira. Ez al didazue sinesten? Zuek itxaron eta ikusiko duzue...

Gure galaxiako planeta guztien jabe egin gara, zuena izan ezik, baina laster Lurraren jabeak ere izango gara, zaudete lasai. Espezie askoren aurka borrokatu genuen. Handiagoekin eta txikiagoekin. Zitrix planetan bizi ziren espezieekin borrokatu ginenean, beno, zuek Urano deitzen diozuen planetaren aurka, fisikoki, zuen antzekoak dira. Ez ziguten batere erraza utzi. Indarrez berdinduta geundenez, estrategia bat egin genuen:

Estratortxtarrak, gutxi gora behera, 476.600.000.000 biztanle gara. Zulo sakon bat egin genuen eta bertan azido pila bat bota genuen, gero biztanleen erdia neskez moztortu ziren eta beste erdia mutilez. Mutilak liluratzen eta neskak liluratzen, egin genuen zulorantz eraman nahi genituen, gero azidora botatzeko. Oso ondo atera zen, zitrixarrak arratoiak bezala erori ziren zepoan. Beste planeta bateko jabeak ikusi gintuen eta harriturik zegoen. Inoiz ez zituen aktore eta aktorea hain bikainak ikusi. Emotionaturik, bere planetara eraman gintuen pelikula bat filmatzeko. Oso ospetsuak bilakatu ginen tipo horri esker baina guk benetan nahi genuena galaxiako planeta guztien jabeak izatea zen eta honena izatea ere lortu genuen. Oraingoan, indarkeriaz irabazi genuen, oso ahulak ziren, ez zeukaten indarririk.

Tximueitor planetarekin egin ginenean oso ondo pasatu genuen. Bere izenak dioenez, planeta horretako biztanleak tximuak dira eta tximuei bananak asko gustatzen zaizkie ezta? Orduan gure planetan banana artifizial asko egin genituen, baina ez zen nahikoa. Diru asko gastatu genuen bananak erosten, baina pelikularengatik diru asko eman zigutenez, ez zegoen arazorik. Banana mordoa genuen eta tximuei denak eman genizkien. Askok loditu ziren. Momentu batetik bestera airetik atera behar ziren. Harriturik geunden, banana gehiago nahi zituzten, ez zuten nahikoa eta ez ziren gehiago galditzen, baina bat-batean... PUNNNN!!! Tximu guztiak eztanda egin zuten. Nazka pixka bat ematen zuen baina nahi genuena lortu genuen eta horrela gertatu zen beste planeta guztiakin. Bakoitzerako estrategia bat asmatu genuen. Batzuk besteak baino hobe atera ziren baina planeta guztiak gureak izan ziren.

Orain zure planetaren jabeak izatea da gure helburua. Zuen espeziea betirako desagertuko da. Ze uste zenuten, aldaketa klimatiko oso handiaren ondorioz edo Lurrari izango den kutsaduraren ondorioz hilko zinetela? Hau farregura! Inuxente samarrak

zarete gizakiak, asko ikasi beharra duzue. Uste dut berekoien itxura ematen ari garela, baina gure nahia ase beharra daukagu. Ez hartu hau mehatxua bezala mesedez, hartu aholku bat bezala. Gomendatzen dizuegu Lur Planetatik 12 ordu barru ateratzea, zuen onerako. Joan zaitezkeite ilargira edo ez dakit, baina Lurretik joan beharra daukazue, gurea da, ulertzen? Badakigu ilargian ezin izango zaretela bizi baina zuen patua da, ez dago besterik, onartu beharra dago. Eskerrak eman beharko zenizkigute abisatzeagatik. Hobe da sufritu gabe hiltzea sufritzen hiltzea baino. Edo zer nahi duzue, gure aurka borrokatu eta galtzen ateratzea? Beno, beno, zuen eskuetan uzten dizuegu, erabaki.

Sufritzen edo sufritu gabe?

12 ordu dituzue. Zorte on!

## BIZITZAKO BIDAIA

**Sarai Robles Vitas**

**2. SARIA:** Bigarren Hezkuntza I. DBH

**2º PREMIO:** Educación Secundaria 1º ESO

Kaixo! Ni Kirki hartza naiz. Herrietako festetan egon ohi diren "tirapitxon" horietako batean bizi izan naiz nire bizitza osoan. Egutero, hainbat haur txiki etortzen ziren jolastera, ni irabazi nahian. Eta ez zen harritzekoa, han zeuden panpina guztien artean ni politena bainintzen. Begi marroiak nituen, eta are marroiagoa zen gorputza. Bi belarri marroi ikusten zitzaizkidan nire buruaren goialdean, eta nire besoak motzak eta leunak ziren. Enborra eta hankak soineko polit batez estalita nituen, erregina bat bezala sentiarazten ninduen. Pozik bizi izan nintzen astero tokiz aldatzen, herri txikitik herri txikira joaten, Iruña izeneko hiri batera heldu ginen arte. Hobeto azalduko dizuet:

Egun batean, ni nindoan kamioia bat-batean gelditu zen, enparantza handi batean. Besteak baino handiagoa zen, eta hogeibat barraka zeuden inguruan. 100 pertsona inguru ikusi nituen alde batetik bestera joaten, eta denak zuriz eta gorritz jantzita zeuden. Hasieran ez nengoen gustura hiri hartan, baina bi egun pasatzean lasaitu egin nintzen. Zerura begiratzen pasa nituen hurrengo hiru egunak, eta hurrengoan, nire bizitza erabat aldatuko zuen gertakizun bat jazo zen; neska txiki batek ni etxera eramateko adina puntu lortu zituen! Gustura nengoen beste panpinen artean, eta ez nituen etxe bateko logela batean egun guztiak giltzapeturik pasa nahi. Beraz, beste panpinen artean ezkatatu nintzen, neskak tximinoa edo izurdea aukeratzeko ahaleginetan. Baina ez nuen zorterik izan. Laster 5 urteko ume baten besoetan aurkitu nintzen, eta ezin nuen ihes egin.

- Ikusi zer hartza lortu dudan ama!! -oihukatu zuen gizaki txiki eta jasanezin horrek, ni gorra uzteko ahaleginetan-edo.

- Zuk ez duzu lortu! Ni naiz puntuak lortu dituen, eta nik Game Boy-a nahi nuen, ez gauza hori! -hasi zen esaten neskaren familiakoa zirudien gazte lodi batek.

- Ez hasi berriz eztabaidan mesedez! -esan zuen haserre aurpegia zeukan emakume batek- Ibai, zuk badaukazu etxean aspertzeko adina joko, ez dituzu gehiago behar.

- Baina Susiek 50 panpina baino gehiago ditu eta beste bat eman diozue. Ez da bidezkoa!

- Astebete txokolaterik gabe zigortua utziko zaitut, horrela jarraitzen baduzu! -hau

entzun orduko txokolatea zer zen jakiteko gogoz geratu nintzen- eta orain igo autora, etxera goaz.

Gaizki usaintzen zuen auto batera igo zen neskatoa, eta ni bere aurpegiaren parean utzi arte altxatuz, zera esan zidan:

- Printzesa deituko zara.

Zer gertatzen zaie gaur egungo umeei? Ez daukate irudimenik ala? Printzesa... Hori ez da izen bat ez ezer! Kirki deitzen naiz, eta akabo! Baina banekien ezin niola Susie izeneko gizaki horri nire kexa azaldu, panpinek ez baitute hitz egiten. Hildakoarena egin, eta nire etxe berria izango zen lekurantz zegoen bidea bukatu arte isilik egon nintzen.

Hara iristean, etxeko txikiaren logela ikusi nuen lehenengo aldiz; idaz-mahai bat, soinekoz eta gonaz betetako armairu bat eta ohe bat. Ohearen gainean, lbaik esan bezala, 50 panpina inguru zeuden. Baina berezitasun bat zeukaten: ez zegoen burua bere lekuan zuenik. Batzuek hankaren lekuan zeukaten, baina gehienek, ez zuten haren arrastorik ere. Beldurra sartu zitzaidan gorputzean.

- Eta orain -esan zuen irribarre maltzur batekin- non daude guraizeak?

Gelatik irten zen, eta bi minuturen buruan mozteko tresna batekin etorri zen. Aparatu hori nire besorantz hurbildu zuen, eta pixkanaka-pixkanaka zabaltzen joan. Nire besoaz agurtu behar nintzen momentuan, korrika egin nuen ihes. Susiek entzumena galtzeko moduko oihu bat bota zuen, bere aitaren izena esaten zuen bitartean. Segundo batzuk pasatzean agertu zen aita, eskuan erratza zuelarik. Niri golpeak ematen saiatzen zen, eta ni, izuturik, kristalezko karratu batera hurbildu nintzen. Ahalegin handiekin baina, azkenean, lortu nuen hura irekitzea. Ez nekien zer egiten ari nintzen, baina gauza da leihotik behera erori nintzela. Eskerrak ez daukadala hezurrik, bestela denak hautsirik izango nituen eta. Han geratu nintzen, kalearen erdian, emandako golpeaz ahaztu nahian. Ordu batzuk pasa ziren gizon bizardun batek ni hartu ninduen arte. Aurpegi arraroaz begiratzen ninduen, baina azkenean irribarre batekin bere dendara eraman ninduen. Atea irekitzean, inoiz usaindutako usainik ederrena heldu zen nire gezurrezko sudurrera. Gosea sartu zitzaidan! Gizonak mahai antzeko batean utzi ninduen eserita, eta ni begiratzen gelditu zen.

- Bai, perfektua zara dendako erakuslehoan egoteko.

Hori esan eta kontu handiz eraman ninduen kalera ematen zuen leiho erraldoi batera. Behin eserita nengola, denda osoan zegoen usain berbera zeukan zerbait jarri zuen nire gainean. Txokolatea omen zen. Ordu batzuk geroago, gizonak agur esan zidan, eta ondoren gelako atetik irten zen. Nire inguruan karteltxo batzuk zeuden, eta haietan, hitz batzuk idatzita. "Txokolatea esnearekin", "marrubizko txokolatea", eta abar. Nire gainean zegoen txokolatea dastatu nuen. Mmmm... Zer ona zegoen... Gustura geratuko nintzen han, baina guk ezin dugu gure bizitza kontrolatu. Bi urte pasa nituen azukrez egindako janari hori egunero jaten. Baina denborak ni hondatzea nahi zuen, eta lortu ere. Nire laguna izan zen gizonak zakarretara bota ninduen, nazka aurpegiarekin.

Oso triste geratu nintzen, ez bainuen ez etxerik, ez lagunik, ez ezer. Inork nahi ez zituen gauzen artean geldirik, lo geratu nintzen. Esnatzean, negarrez hasteko gogoa nuen. Baina, bat-batean, mutil txiki batek hartu ninduen besoetan. Bere aurpegia oso zikina zegoen, eta txikiak zituen arropak janzen zituen. Bere oin oinutsekin korrika joan zen, ni besoetan ninduela. Txabola batzuen aurrean geratu zen, eta haietako baten barrura sartu. Bere amari erakutsi ninduen, eta honek irribarre polit bat eskaini zidan. Inoiz

baino zoriotsuago bizi izan nintzen familia horrekin. Ondo zaintzen ninduten, eta nik umea zoriotsu egiten nuen. Eta hau da nire bidaia luzean ikasi dudana: batzuetan, gutxi- daukatenak dira gehien ematen dutenak.

### GURE ISTORIA

**Maite Uriarte Belzunegi**

**I. SARIA:** Bigarren Hezkuntza 2. DBH

**I° PREMIO:** Educación Secundaria 2° ESO

Asteazken lainotu batean, neskatxa bitxi bat ezagutu nuen. Neskatxa hura oso polita zen eta oso atsegina. Beltzarana zen larruz, eta ez zen oso altua. Oso alai-a zen eta beti irrifar egiten zuen, begi marroi handiak zituen eta asko adierazten zuten berataz. Bere iraganari buruzko galderak egiten nizkionean, malkoak eragiteko gogoz jartzen zitzaizkion begiak eta irrifarrak bere ahotik ihes egiten zuen.

Nik, bere aurpegiak adierazten zuena ikusita, ez nizkion mota horretako galdera gehiagorik egin elkarrizketa hartan. Garrantzirik gabeko galdera batzuk egin nizkion eta berehala, nire sekzioa betetzeko behar nituen datu guztiak nituen.

Konturatu zaretan bezala, ni “Ze berri?” aldizkariko kazetari bat naiz. 20 urte ditut eta Iruñerriko herri lasai batean bizi naiz pozik eta gustura. Normala den bezala, nire lanari esker, mota askotako pertsonak ezagutzen ditut. Kontatzen ari naizen bezala, dena normala zen nire bizitzan, neskatxa hura ezagutu nuen arte.

Neskatxarekin elkarrizketa izan ondoren, nire bulegora joan nintzen nire sekzioa betetzera. Neskatxa hartaz zerbait gehiago jakiteko internet-en sartu nintzen eta bere izena idatzi nuen: Ogexy Mandula. Nire harridurazko aurpegia ikusi beharko zenukete informaziorik ez zela agertzen ikusitakoan. Hori ikusita, jendeari galdezka hasi nintzaion eta inork ez zidan informazio berririk ematen. Artxi-boetan begiratu eta bere telefono zenbakia aurkitu nuen, oso azkar zenbakiak markatu nituen eta... zenbakia ez zela existitzen atera zitzaidan. Berrito saiatu nintzen, baina ezer: Denek ezagutzen zuten, idazle bikaina baitzen, baina inork ez zekien ezer gehiago. Orduan Ogexy-k emandako erantzunei erreparatu nien, eta nire burua ez zegoen berak esandakoarekin ados, Ogexy gezurretan ibili zela pentsatzen nuen.

Bat-batean lankide bat etorri zitzaidan eta zerbait aurkitu zuela esan zidan. Orain dela 2 urte, beste kazetari batek ere elkarrizketa bat egin zion eta bi elkarrizketetako erantzunak alderatu nituen. Guztiak desberdinak ziren. Elkarrizketa hori egin zion gizonari deitu nion eta berarekin gelditu nintzen hitz egiteko.

Hurrengo arratsaldean gizon horrekin, Alonsorekin, elkartu nintzen eta berak zerbait arraroa ere sumatu zuela esan zidan. Denbora luzez hitz egiten egon ondoren, tratu bat egin genuen; Ogexy-ri buruzko egia jakin behar genuen. Bakoitzak bere aldetik egingo zuen ikerketa eta gero bion aurkikuntzak alderatuko genituen. Eta hala egin genuen. Ogexy-ren liburu guztiak irakurri nituen goitik-behera, eta umeordea zela konturatu nintzen. Bera jaiotako urteko pertsona guztien artxi-boak begiratu nituen eta kostata, baina azkenean Ogexy aurkitu nuen. Bere gurasoek iragan latza izan zuten. Bere aita hiltzaile bat zen eta kartzelatua izan zen 1992. urtean, eta bere ama desagertu egin zen, itsasoan arrantzan zebilela, eta inork ez du berataz ezer gehiagorik jakin.

Egun batzuk igaro ziren eta goiz batean Alonsok deitu zidan. Ogexy-rekin egona zen hitz egiten. Ogexy-k egia kontatu zion, nik jadanik banekiena. Famatua zenez ez zuen nahi jendeak hori guztia jakitea eta horregatik ez zuen inoiz egia esaten.

Dena konponduta zegoen, baina gau hartan amets bitxi bat izan nuen. Ametsetan, ni agertzen nintzen, oso urduri, izerditan, baina aldi berean oso pozik. Norbaitekin nengoen. Neska batekin. Neskak Ogexy-ren antza zuen eta berari ere oso urduri eta pozik sentitzen zitzaion. Esnatu nintzenean, amets horrek esan nahi bat zuela konturatu nintzen: maitemindua nengoan.

Ametsa inoiz gertatu ez balitz bezala joan nintzen nire bulegora. Lanean ari nintzela, atea kolpatu zuten. Atea zabaldu eta neskatxa oso polit bat sartu zen nire bulegoan, Ogexy zen. Zer egin ez nekiela mugitzen hasi nintzen. Ogexy nire aurreko aulkian eseri eta hitz egiten hasi zen. Dagoeneko lagunak ginenez, laguntza eskatu zidan. Bere ama aurkitu nahi zuen, ala behintzat itsasoan galdu ondoren zer gertatu zitzaion jakin. Nik ezin nion ezetz esan eta nahi ez izan arren, lagunduko niola esan nion.

Handik aste batera hasi ginen bilaketan. Bere jaioterria bidaiatu genuen. Behin han izanda, bere aspaldiko etxea bilatu genuen. Berehala aurkitu genuen, Ogexy-k oso ondo gogoratzen zuelako bere jaioterria. Behin han izanda bere lagun zaharrak aurkitu zituen. Beraiekin minutu batzuk egon eta gero, informazio nahikoa genuen bilaketan hasteko.

Itsasontzi bat hartu eta itsasoan sartu ginen. Itsasoan egunak pasa genituen eta ez genuen ezer ikusten. Bat-batean urrunean irla bat ikustea iruditu zitzaigun. Irlarantz gindoazen zuzenean eta hurbil geundenean, irla desagertu eta gure aurrean ura bakarrik ikusten genuen. Pare bat aldiz gertatu zitzaigun hau, baina hain nekatuta eta aspertuta geundenez normala zela pentsatu genuen. Egunak pasa genituen horrela, existitzen ez ziren irlak ikusiz. Hasieran urrun ikusten genituen baina hurbiltzen hasten ginenean desagertu egiten ziren. Haize bolada batek irla magiko bat kontrolatuko balu bezala zen.

Azkenean gauza arraro hartaz aspertu egin ginen eta benetan zer gertatzen ari zen jakin behar genuen. Orduan, irla bat agertzen zen momentuan, arraunei ematen hasten ginen irla harrapatu nahian, baina ezinezkoa zen.

Hain nekatuta geunden ezin genuela gehiago. Baina egun hartan, itsasoan ekaitza izan zen. Olatu oso altuak sortu ziren eta haietako batek azpian harrapatu gintuen. Olatuaren azpian geunden, baina ito baino lehen itsaso azpian sartu eta irla berezi batean erori ginen. Gorantz begiratzen bazenuen, ez zenuen zerua ikusten, itsasoa ikusten zenuen. Ez zeuden berarez estalitako parkeak, algaz estalitako parkeak zeuden. Hasieran oso arraroa iruditu zitzaigun baina berehala zoragarria zela aitortu genuen.

Irla nolakoa zen begiratzen ari ginela, maskorrez egindako etxe bat ikusi genuen. Barrura sartu ginen. Bat-batean gela batetik soinuak entzun genituen eta gelako atea pixkanaka zabaltzen hasi ginen. Guztiz zabaldua zegoenean, emakume bat ikusi genuen. Ogexy pozez saltoka hasi zen eta besarkada handi bat eman zion emakumeari. Nik ez nuen ezer ulertzen. Zirrara pasatu zitzairenean Ogexy-k azaldu zidan emakume hori bere ama zela. Ni poztu egin nintzen eta bere amarekin hitz egiten egon ginen.

Berak azaldu zigun, itsasontzian zihoala, olatu erraldoi batek irentsi zuela eta ezer-taz konturatu gabe irla hartan agertu zela. Han oso gustura bizi zela ere esan zigun baina batzuetan bakarrik sentitzen zela.

Ondo pentsatu ondoren, erabaki garrantzitsu bat hartu genuen: berarekin bizitzen



gelditzea. Han ondo biziko ginen eta bera ez zen bakarrik sentituko.

Ogexy-k eta nik asko maite dugu elkar eta oso gustura bizi gara hemen. Istorio hau, botila batean bidaltzen ari gara, eta beste pertsonen istorioak entzutea eta irakurtzea asko gustatzen zaigu. Nahi baduzu, zure istorioa idatzi, botila batean sartu, eta ez kezkatu, korronteeek gure irlara ekartzen baitute itsasoan dagoen guztia, zikinkeria ere bai. Eskertuko genizueke, zikinkeriarik botako ez bazenute, guztiona den itsasoa zikintzen duzuelako eta gure irla ere bai.

## LIBURUEN SEKRETUAK

**Maialen Martínez Zabalza**

**2. SARIA:** Bigarren Hezkuntza 2. DBH

**2º PREMIO:** Educación Secundaria 2º ESO

Bazen behin, herri txiki batean, mutil bat. Unai deitzen zen, 14 urte zituen eta irakurtzea ez zitzaion batere gustatzen. Lagun asko zituen batez ere eskolan. Egun batean, eskolan zegoela, irakasleak liburu bat irakurtzeko esan zien ikasleei. Unai ez zuenez liburua erosiko, liburutegira hartzera joan zen. Liburutegian zegoela, atso zehar bat liburu lodi bat uzten ikusi zuen; orduan, Unai, ea zer liburu zen ikustera joan zen. Zerbait arraro ikusi zuen liburu hortan, baina txorakeria bat izango zela pentsatu zuen. Unai behar zuen liburua hartu zuen.

Hurrengo egunean, etxera zihoala, liburutegiko atsoa ikusi zuen eta keinu bat egin zion, Unai ez zion kasurik egin.

Eskolan zegoela, Unai ez ziola atsoarena inori esango esan zuen. Geroago, patioan, atsoa berriro ikusi zuen eta beste keinu bat egin zion. Unai urduri jartzen hasi zen. Eskola bukatu eta gero, etxera joan baino lehen, liburutegira joan zen. Berriz ere, liburu lodia ikusi zuen eta azkenean hartu egin zuen.

Etxean zegoela, liburua hartu eta barruan giltza bat ikusi zuen. Unai pentsakor geratu zen, liburua ez zuenez irakurriko, giltza hartu eta ohera joan zen.

Hurrengo egunean, larunbata zen eta orduan bere lagunekin geratu zen. Parkean elkartzeko geratu ziren. Unai parkera zihoala, bere atzean itzal bat ikusi zuen, buelta eman eta hor zegoen betiko atsoa. Orduan Unai esan zion:

- Zer nahi duzu nitaz?

Eta atsoak erantzun zion:

- Giltzak leku batera eramango zaitu, baina hori jakiteko liburua irakurri beharko duzu -(atsoa desagertu zen).

Unai bere lagunekin elkartu zen, baina denbora guztian atsoak esan zionari bueltak ematen zebilen. Etxera iritsi zenean, logelara igo eta liburua irakurtzen hasi zen. Liburuak bi zenbaki zituen eta atzeko aldetik bi letra, Unai dena gorde eta ohera joan zen.

Hurrengo egunean, goizean, atsoa ikusi eta bi zenbaki eman zizkion Unairi. Unai harrituta geratu zen. Atsoak emandako zenbakiak liburukoak bezalakoak ziren. Horrela egunak pasata, 14 zenbaki lortu zituen, bakarrik lau zenbaki falta zitzaizkion esaldi oso bat izateko. Denbora igarotzen zen eta Unai esaldi oso bat lortu zuen.

Esaldia honakoa zen: "Plazako zuhaitza".

Unai hori irakurtzean pentsakor geratu eta, plazako zuhaitzera joatea erabaki zuen. Plazara iritsi zen eta ez zuen ezer ezta inor ikusten. Han bakarrik zegoen Unai. Ordu

## XX Certamen literario infantil-juvenil en euskera

bat pasata, Unai han segitzen zuen eta ez zenez inor agertzen etxera itzuli zen. Etxera itzuli bezain pronto, liburua hartu eta irakurtzen hasi zen berriz ere. Orri batean zuhaitz baten marrazkia agertzen zen. Orduan Unai esan zuen:

- Noski! Zuhaitzera igo behar dut!

Unai, hurrengo egunean, esnatu bezain pronto zuhaitzera abiatu zen.

- Liburua eramango dut badaezpada ere.

Plazako zuhaitzera iritsi zenean inork ikusi gabe kontu handiz igotzen hasi zen. Goian sarrail bat zegoela ikusi zuen. Liburuko giltza poltsikoan zuen eta orduan hartu eta sarrailan sartu zuen.

- Bai, giltza sartzen da!! -oihukatu zuen.

Bat-batean, ate bat agertu zen. Unai sartu zen eta bertan logela zoragarri bat zegoen. Logelako izkina batean, beste sarrail txiki bat zegoen. Giltza sartzen saiatu zen, baina giltza handiegia zela konturatu zen.

Logelan zegoen ohe batean eseri eta liburua irakurtzen hasi zen. Liburua irakurtzen zegoela, beste giltza txikiago bat ikusi zuen.

- Hau bai sartuko dela -esan zuen Unai pozik.

Unai atera hurbildu eta giltza sartu zuen. Atea ireki eta liburutegi handi-handi bat zegoen. Liburutegian sartu eta liburu guztiak abenturazkoak zirela konturatu zen. Liburutegia oso polita zen eta oso ondo antolatuta zegoen. Unai, logelan zegoen erlojuari begiratu eta berandu zela konturatzean, etxera joan beharko zuela esan zuen.

Gau hartan, Unai ohera joan baino lehen, liburua irakurtzen jarraitu zuen.

Hurrengo goizean, Unai berrito zuhaitzera joan zen. Han, logela zoragarrian eman zuen ia goiz osoa. Arratsalde hortan, Unai bere lagunekin geratu zen.

Bere lagunekin elkartu eta...:

- Kaixo!- Esan zuen Unai.

- Kaixo!- Erantzun zuten besteek.

- Nirekin etorri behar duzue! Plazako zuhaitzaren goialdean ate bat irekitzen da eta logela zoragarri bat dago bertan -esan zuen Unai pozaren pozez.

- Baina zu? Erotuta zaude ala? Nola egongo da logela bat zuhaitz baten goialdean?- Erantzun zuen Mikel bere lagun minak.

- Baina sinetsi behar didazue! Egia da eta! -erantzun zuen Unai.

- Barkatu Unai baina ezin dizugu sinetsi -erantzun zuten besteek.

- Etorri nirekin eta erakutsiko dizuet.

- Beno, aukera bat eman beharko diogu, ez? Gure laguna da eta! -esan zuen

Martak.

- Ikusiko duzue!

Unai eta bere lagunak plazako zuhaitzera iritsi ziren. Unai igo zen lehena eta gero bere lagunak. Unai giltza hartu eta atea ireki zuen. Sartu zirenean eta logela ikusi zutenean denak harrিতa geratu ziren.

- Oso polita da! -esan zuen Martak harriturik.

- Bai oso polita -esan zuen Mikelek ere.

- Barkatuko al diguzu ez sinesteagatik? -esan zuten Mikelek eta Martak batera.

- Bai.- Erantzun zuen Unai.

- Honek gure sekretua izan beharko du -esan zuen Unai.

- Bai, bai, gu hiruron artean gordeko dugu sekretu hau -esan zuen Martak.

- Eta ezin diogu ezta gure gurasoei kontatu? -esan zuen Mikelek.

- Ez, gu hiruron sekretua izango dela esan dugul! -erantzun zuten Unaik eta Martak.

Han eman zuten denek arratsalde osoa hitz egiten eta liburuak irakurtzen. Handik aurrera, egunero plazako zuhaitzera joaten ziren eta abentura berriak bizitzen zituzten egunero. Gainera Unairi irakurtzea gustatzen hasi zitzaion.

# Bertso paperak modalitatea

Modalidad **“Bertsos escritos”**

## **JAJAK**

**Miren Azkoaga Ioldi**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 4. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 4º curso

---

Barañaingo festak  
laister hemen dira,  
gonbidatuta zaude  
etor zaitez, tira,  
festa, parranda ta gu  
bai hementxe gira,  
nola ez azkenean  
zu hementxe zira.

## **AGUR IKASTOLA!**

**Neskutz Amondarain Agirre**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 6. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 6º curso

---

**Doinua:** Maritxu nora zoaz?

**1)** Duela bederatzi urte  
txikienak ginen  
haur hezkuntzan gu geunden  
painalak zikintzen.  
Lehenengo irakaslea  
Gurutze izan zen,  
bigarrenak ordea  
Sagrario du izen.

**2)** Eskolan handienak  
orain gu bai gara  
DBHn txikiak  
hura bai ikara.  
Ta gure tutorea  
izango da Ainara  
denok urduri gaude  
barneko zirrara.

## IZENBURURIK GABE / SIN TÍTULO

**Sarai Robles Vitas**

**I. SARIA:** Bigarren Hezkuntza I. DBH

**I° PREMIO:** Educación Secundaria I° ESO

---

**Doinua:** Andre Madalen.

**Gaia:** Irakaslea makil batekin agertu da klasean.

- 1) Gure klasean irakaslea sentitzen da infernua gauden guztiok ordu guztitan diogu falta errespetuan nahi omen zuen irakasleak zigor txiki bat guri eman eta horregatik gaur etorri da zuela makila eskuan.
- 2) Bere aurpegia ikusita nik hasieran nuen beldurra esan daiteke irakaslea badela oso maltzurra bere ahotsa entzun genuen bazirudien txakurra “gaur ez duenak, lanik egiten jaso egingo du egurra”.
- 3) Sentitu nuen ikara baina gero “a ze kankailua!” dirudienez txoroz beteta badago gure mundua honek asmatu beharko luke irakasteko gailua “ez da munduan oraindikan gu menderatzeko modua”.

## Aurkibidea / Índice

### Ipuinak / Cuentos

<b>SARIA / PREMIO</b>	<b>EGILEA / AUTOR</b>	<b>ORR. / PÁG.</b>
<b>3. maila LH/3° E.P.</b>		
1. saria Ilargia jaten	Ibai Leceta Marañon	5
2. saria Lamina baten abentura	Ane Ariz Balda	5
<b>4. maila LH/4° E.P.</b>		
1. saria Uhartean abentura	Ainhoa Lasarte Cia	5
2. saria Otoitz egin! Otoitz egin! Ze aspergarria!	Martin Gil Lizarraga	7
<b>5. maila LH/5° E.P.</b>		
1. saria Nolakoa da basajaun?	Idoia Garmendia Berango	7
2. saria Gela bateko landareen "ikastorduak"	Iñaki Martínez Azpiroz	8
<b>6. maila LH/6° E.P.</b>		
1. saria Deabruaren kobazuloa	Bernd Isamu Villamor Tokumine	9
2. saria Kanpinean	Garazi Retegi Gofiri	10
<b>1. DBH/1° E.S.O.</b>		
1. saria Gizakien azkena	Bidane Zabalza Alonso	12
2. saria Bizitzako bidaia	Sarai Robles Vitas	13
<b>2. DBH/2° E.S.O.</b>		
1. saria Gure istorioa	Maite Uriarte Belzunegi	15
2. saria Liburuen sekretuak	Maialen Martínez Zabalza	17

### Bertso paperak / Bertsos escritos

<b>SARIA / PREMIO</b>	<b>EGILEA / AUTOR</b>	<b>ORR. / PÁG.</b>
<b>4. maila LH/5° E.P.</b>		
1. saria Jaia	Miren Azkoaga Ioldi	20
<b>6. maila LH/6° E.P.</b>		
1. saria Agur ikastola!	Neskutz Amondarain Agirre	20
<b>1. DBH/1° E.S.O.</b>		
1. saria Izenbururik gabe / Sin título	Sarai Robles Vitas	21





AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN  
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara zerbitzua  
Servicio municipal de euskera